



# ANKULEGI

**Antropologia Elkarte**  
**Asociación Vasca de Antropología**  
**Association Basque d'Ethnologie**

 CRAJ. Anoeta pasalekua 28  
E-20014 Donostia

 1.697 posta kutxatila  
E-20080 Donostia

 900 110 111

 <<http://ankulegi.pangea.org>>  
<[ankulegi@pangea.org](mailto:ankulegi@pangea.org)>

**Ankulegi**, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPVko) gizarte antropologo talde baten ekimenez sortu zen Donostian 1994an. Bere izena osatzen duen akronimoa ANtropologia, KULTura Eta Gizartea hitzetatik dator.

Ankulegi irabazi-asmorik gabeko elkarte da, berau sortu zen unibertsitatetik askea eta diziplinan interesa duten guztiei irekia, ikasleak, graduatuak edo profesionalak izan, edo zaleak besterik ez direla. Egun 50 kide inguru ditu.

Ankulegi Estatu Espainiarreko Antropologia Elkartearen Federazioaren (F.A.A.E.E.) partaidea da.

## Xedekak

- Antropologia diziplina zientifiko gisa instituzionalizatu eta zabaltzea.
- Ikerketa antropologikoa sustatzea.
- Ankulegi antropologia aldizkaria argitaratzea.
- Jarduera profesionalak eta hezigarriak bultzatzea.
- Kideentzat bilgune eta eztabaida gunea izatea.
- Antzeko elkarte eta erakundeekin hartu-emanetan hastea.

## Jarduera nagusiak

- Ankulegi Antropologia Jardunaldia antolatu (urtero 1997tik).
- *Ankulegi. Gizarte antropologia aldizkaria / revista de antropología social / revue d'ethnologie* argitaratu (urtero 1997tik).
- Ikastaroak antolatu: "Identitatea eta etnizitatea Euskal Herrian" (ITA-ICA, 1997), "Argazkigintza etnografikoa" (EHU-UPV, 2002) eta "Bitartekaritza. Gatazken konponbide alternatiboa" (EHU-UPV, 2002).
- Antropologoaren profil profesionalaz eta lan irtenbideez arduratzen den lantaldea (2001-2002).
- *Hiria zugandik gertu*, etorkinentzako baliabide gida prestatu (2002-2003, Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako egitasmoa).

## Eskainitako zerbitzuak

- Biblioteka eta hemeroteka: antropologia aldizkarien bilduma handia.
- Interneteko forua (*Ankuplaza*): berriak, artikuluak euskarri informatikoan, solasgunea.
- Elkartearen webgunean kideen monografiaren berri emateko lekua.

## Hartu-emanak eta lankidetzaren hitzarmenak

Ankulegik gizarte zientzien eta humanidadeen esparruko elkarte eta erakunde ezberdinekin ditu hartu-emanak eta informazio eta argitalpen trukea egiten duen elkarte eta erakunde horiekin ez ezik, diziplina antropologikoan interesa duten beste pertsona zein taldeekin ere hartu-emanetan hasteko prest dago.